


Astekaria



elgoi



Elgoibarera bisitan

Badator



150.000etik 700.000 pta.ra bitarteko deskontuak. Zatoz lehenbailehen eta aprobetxatu aukera hau. Bakarra eta errepikaezina. Ez galdu denborarik eta apunta zaitetz Ford-eko "X" operazioan.



GARAY



HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko 9 - Tel. 74 13 92 - ELGOIBAR



UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIA

Primerako xerra RABADILLA 1.490 pta/Kg	Primerako xerra BABILLA etab... 1.390 pta/Kg	Aurreko solomoko TXULETA 1.390 pta/Kg	Atzeko solomoko TXULETA 1.490 pta/Kg
HEGALAK SAIHESKIAK 690 pta/Kg	GISATZEKO LEPOA 890 pta/Kg	ZANKARROIA, KARRILERAK,... 990 pta/Kg	2. mailako HARAGI-XERRA 1.090 pta/Kg
Hezur gabeko FALDA EGOSIA-GISATUA 790 pta/Kg	890 pta/Kg KROKETAK <u>BEXAMELAREKIN</u> JAMON YORK CHOPPED ETA GAZTA ARRAULTZAK 990 pta/Kg		Primerako xerra KONTRA-SORBALDA 1.290 pta/Kg
TXAHAL BULARRA 490 pta/Kg	1.490 pta/Kg MINGAINA ETXEAN EGINDAKO JAKIAK: - SAN JAKOBAK - PIPAR BETAEK - ALBONDIGAK - MINGAIN GISATUA - INDIOILAR ROLLITOAK - TRIPAKIAK TOMATETAN - HARAGI GISATUA - PINTXO MORUNOAK		ROOSBEEFa ENTRECOTa 1.890 pta/Kg

ANIMA ZAITEZ



**Oso garrantzitsua da euskararentzat
zu ere gure hizkuntzaren uretan murgiltzea,
dagoeneko askok eta askok egin dugun bezala.
Ikasturte honetan Udal Euskaltegiok
aukera hori eskaintzen dizugu.
Anima zaitez,
zatoz, gurekin gozatuko egin duzu eta.**

96-97RAKO EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA eskaintza bereziak.

IKASLE ETA LANGABETUEK PREZIO BEREZIAK.
Bekatzeko sistema ere badugu eta ia dohainik ikas dezakezu euskara.



Nafarroa enparantza, 2 - ☎ 74 27 31 -

GOZATUKO DUZU

egin zaitez bazkide

Aupa Elgoibar!



C.D. ELGOIBAR



7 talderekin 160 neska-mutil futbolean

Zuen guztion beharrean gaude



Hurrengo gola elkarrekin sartuko dugu!

Mintxetako ingurune paregabean **FUTBOLA ZUZENEAN** elgoibartarrentzat eksklusiban!



Bete ondoko txartela eta ekarri Mintxetako kirol instalakuntzan dugun lokalera. ☎ 74 19 49

Izena abizenak

Zuzenbidea.....Tel

KUOTA: Bazkide babeslea 10.000 pta (socio protector) TRIBUNA 2.000 pta

Bazkide normala 7.000 pta

Jubilatua, gazteak, emakumeak 4.000 pta

Bankua..... Kontu zenbakia (20 zenbaki).....



HIZKUNTZ IKASTAROAK

Ingelesa - Frantsesa - Alemana

IRAKASLE NATIBOAK

IKUS- ENTZUNEZKOAK

HIZKUNTZ
LABORATEGIA

CAMBRIDGE eta GOETHE
INSTITUT azterketetarako
prestaketa

TALDE TXIKIAK
Arreta
personalizatu



MATRIKULA ZABALIK

- MAILA GUZTIAK
- ARRATSALDEAKO ORDUTEGIA
(17:30-19:15 edo 19:15-21:00)
- IKASTURTEAREN HASIERA
(IRAILAREN 30a)


INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

ILS - Industry Language Services
IMH - San Roke Auzoa, 1 - ELGOIBAR
Tel: 74 40 40 - Faxe: 74 16 54



Conchi

San Frantzisko, 19 - Tel. 74 14 32 - ELGOIBAR



- Zein arropa mota aurki dezakegu zure dendan?

- Era guztietako estiloak ditugu: sport, klasikoa... bakoitzaren gustuen araberakoa. Orokorrean faldoiak, trajeak, nezeserrak zein oinetakoak egiteko haria eta artilea daukagu.

- Zein adineko umeei zuzendua?

- Jaio berrietatik bi urte bitartekoei.

- Zein da zuen berezitasuna?

- Faldoi eta trajeetan dugu batez ere aukera handia. Hori guztia gainera, kalitate eta prezio oso onean.

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementería.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martín,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegí, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Hizkuntz eskubideentzat babesa

Ekainaren 6an onartu zen Bartzelonan Hizkuntz Eskubideen Aitorpen Unibertsala. Onarpena mundu osoko 100 Gobernuz kanpoko erakunde inguruk eman dio, beraien artean Euskal Kulturaren Batzarrak.

Aitorpena, CIEMEN eta INTERNATIONAL PEN elkarteek antolatuta, Bartzelonan ospatu zen Hizkuntz Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentzian hartu zen.

Honen helburua mundu mailan hizkuntz komunitate guztiek izan behar dituzten gutxieneko eskubideak eskaintzea da, eskubide horiek Estatuek aintzat hartu eta bultzatzen dituzten.

Giza Eskubideen alorrean dagoen Aitorpenaren antzeko balioa lortu nahi da hizkuntz eskubideen alorrean, orain arte baino zehaztaperen handiago batekin.

Konferentzian mundu osoko hizkuntz komunitateek parte hartu dute, eta beraz, oso modu desberdinez gertatzen dira arazak munduko leku desberdinetan. Hala ere, Aitorpenak garbi lagatzen du arriskuan dauden hizkuntz gehienak soberania falta jasaten duten herrietan aurkitzen direla, eta arrisku horien aurrean Hizkuntz Eskubideen Aitorpen Unibertsal baten beharra planteatzen du.

Aitorpenak hizkuntz komunitatea eta hizkuntz taldea bereizten ditu: hizkuntz komunitatea lurralde bateko herriaren berezko hizkuntza duena, hizkuntz taldea beste hizkuntz komunitate baten lurraldean finkatu den giza multzoa. Eskubideak hiz-

kuntz komunitateari dagozkiola garbi lagatzen du, noski, inor baztertu gabe eta hizkuntz taldeen integrazioa bultzatuz, hauen berezko ezaugarrietarako eskubidea ere aitortuz.


Aitorpenak Administrazioa, Hezkuntza, Onomastika, Komunikabideak, Kultura eta alor Sozioekonomikoa arautzen ditu. Orokorrean Aitorpena aurrerakoia da Euskal Herriko egoeratik begiratuz, eta planteatzen dituen eskubide standartetik batzuk gaur hemen ez dira betetzen, ezta Euskal Autonomi Erkidegoan ere (are gutxiago Nafarroa eta Iparraldean): hala nola, Justizia Epaitegiek komunitatearen berezko hizkuntza erabili beharra, hezkuntzak berezko hizkuntzaren eta berezko kulturaren jabe-kuntza osoa eman beharra, publikitate eta era guztietako seinaleetan berezko hizkuntzaren nagusitasuna ezartzeko eskubidea, edozein enpresa, denda edo entitatetan berezko hizkuntzan aritzeko eskubidea.

Aitorpen Honen helburua UNESCOren bidez ONUra iristea da, ONUko Estatuaren Batzarrak Aitorpen Unibertsala erabaki dezan. Bide luzea beraz, eta lehendabizi UNESCOk berak onartu behar du.

Horrez gain, konferentzian oso garbi geratu zen Nazioarteko Aitorpenaren babesa lortu bitartean ere, hizkuntz eskubideen gaineko babesa ziurtatuko duen nazioarteko ekimen baten beharra, eta horretan katalanak, kebekarrak eta euskaldunak aitzindari izatea eskatu zuen hainbat ordezkari.

Juan Mari Mendizabal

*Eusko Jurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



- Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasle batzuk etorri dira **Urasandiko** goiko aldeko azkeneko **parkean jendeak gauzak ez dituela zaintzen** salatzen. Iturria eta jarlekuak apurtuta daude eta denonak diren gauzak hobeto zaintzeko eskaria luzatu nahi dute.

- Irakurle batek aurtengo San Bartolome **jaietako egitaraua** zein kaxkarra izan den adierazi nahi du. 1952ko jai egitaraua ikusi ondoren gauza batez ohartu da: zeuden medio gutxiek zenbat ekintza antolatzen ziren: boxeoa, suzkorroberak bi egunetan, aeromodelismoa, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko atletismo frogak, zezenketak, kros herrikoia... Gaur egun jaietarako dagoen aurrekontuarekin 1996ko jaiak "oso kaxkarrak eta irudimen falta handikoak izan direla" iruditzen zaio.

- Leku-Ederreko bizilagun batek deitu digu bertako **garajeko pintada oraindik han dagoela** Udalarari gogorarazteko. "Lau hilabete pasatu dira segituan garbituko zutela agindu zutenetik (Ikus BARREneko 156. zenbakiko galdera). Beste toki batzuek hori baino lehenago garbitu dituzue, zergatik?"


TXALOAK

San Pedro auzoko herritar batek Udala txalotu nahi du Matadero zaharraren ondoan dagoen **aparkalekuan argia jarri duelako** eta auzoko parkean kolunpioak jarri dituelako.

ESKUTITZAK

Jesusen omenez

Antzerkiaren plaza handian, kartoizko arkupearen azpian, ponpoxo, pasiaadan, mimo txuriak beren txotxongilo bihurriak eskutik helduta; ponpoxo, pasiaadan, printzesa lotsati bat zaldun urdinaren zaldi gainean makurtuta; ponpoxo, pasiaadan, Hamlet eta Macbeth elkarri irinka, haserre, makurtuta.

Antzerkiaren plaza handian, oihalaren ezkerreko bazterrean, zeu, Jesus, musikaz zipriztinduta, txaloka alai; hurrengo ekitaldiaren zain.

Taupada Antzetzaldea

Elgoibarko Herriaren Aldarrikapena

Azken bolada honetan gure herrian gertatu diren bortizkeriak direla eta, Elgoibarko herritar guztiok elkarbizitzaren eta errespetuaren alde jaso nahi dugu gure abotsa.

Elgoibarren lan egiten dugunok, Elgoibarren paseatzen dugunok, Elgoibarren kirola egiten dugunok, Elgoibarren dibertitzen garenok, Elgoibarren ekitaldiak antolatu eta horietan

parte hartzen dugunok; azken batean gure eguneroko bizitza normaltasunez eta era baketsu batean egiten dugunok zera adierazi nahi dugu:

Bakoitzak bere ideiak era aske batean eta errespetuz aldarrikatzeko eta beraien alde lan egiteko eskubidea daukala, beti ere eskubide hori guztiona dela azpimarratuz.

Era berean, gure herriaren arazoak eta Euskal Herri osoaren arazoak, guztion artean, eguneroko lanari, elkarrizketari eta tolerantziari esker gaindituko ditugula sinesten dugulako, elgoibartar guztion elkarbizitza baketsu bat eskatzen dugu ozenki.

Gure seme-alaben Elgoibar, gurea baino hobea, ederragoa, baketsuagoa, zorionsuagoa eta alaiagoa nahi dugulako.

Horregatik, Elgoibarko herriak elkar errespetuan bizi nahi duelako, Elgoibarko herriak etorkizun hobeko bat nahi duelako, herri honetako elkarte eta herritarrok gure arteko bakearen aldeko konpromezua eta lana aldarrikatzen dugu.

Aldi berean, Jesus Mari Castañaresi eta gainontzeko zaurituei gure elkartasun osoa zuzentzen diegu, behar duten edozertarako prest gaudela adieraziz.

EAJ/PNV, PSE, EA, PP eta IU/EB

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Pilar Zabaletak** lagatakoa da. Erretratua 1935eko irailean ateratakoa da, San Antolin auzoko jaietan hain zuzen ere. Erretratuan daudenak San Antolin auzoko gazteak dira eta ikus daitekeen bezala, bazkal ostean aterako zuten. Orduko jaietan ere musika eta jatorduak ezinbestekoak ziren. San Antolin auzoko jaiak 1972. urtean ospatu ziren azkenengo aldiz Elgoibarren.

Ikus dezagun zein diren erretratuan agertzen diren neska-mutilak:

Behean, ezkerretik hasita: **Jose Intxausti** (†), **Remigio Iriondo** (†), **Juan Iriondo** (†), **Domingo Iriondo** eta **Victor Arozena** (†).

Erdian: **Arriola "Galbuso"** (†), **Ramon Etxaniz** (†), **Manuel Osoro "Kurutzalei"** (†), **Isidro Larrea** (†), **Patxi Zabaleta** (†), **Santi Zabaleta** (†), **Tomas Iriondo** (†) eta **Rufino Iriondo** (†).

Aztean: **Pilar Zabaleta** eta **Eduardo Iriondo** (†).



*Jesus Fernandez
Quintas*

Horrelako okasio batean ere izango zenuke zerbait berezia esateko. Zure hitzak, izaera,.... zu zeu faltan botako zaitugu, Jesus.

Baina zurekin bizi izandako une guztiak bihotzean dauzkagu. Ez zaitugu ahaztuko.

Elgoibarrera bisitan

Elgoibar ez da herri turistikoa, batzuek 2000. urterako antzeko zerbait sortu nahi badute ere. Momentuz, gureak industri gunea izaten jarraitzen du. Halere, noiz edo noiz kanpoko jendea hurreratzen da. Arrazoi ezberdinengatik, aurtengo udan ere izan ditugu bisitari atzeritarrak. Horiek guztiak elkartu eta bakoitzaren nondik norakoak jakin ditugu. Batetik, ukrainiar neskatxa bat izan da Txillarre baserrian. Chernobileko hondamena bere azalean bizi izan zuena. Bestetik, Doris eta Marcia Etxeberria ezagutu genituen. Haien aitak, Toribio Etxeberria zenak, 14 urterekin EEBBetara emigratu zuen eta hauek han jaio eta hazitako emakumeak dira. Horien guztien artean, Miguel De La Cuadra Salcedo ezaguna ere ikusi ahal izan genuen San Bartolomeetan zapi gorria jantzita.



Txillarreko Argiñe, Ana Slobodian eta Argiñeren amama.

Chernobiletik Txillarre baserria

Ana Slobodian, 14 urteko neska ukrainarra da. Uztailaren 21etik abuztuaren 28ra arte Sallobente bailarako Txillarre baserrian sekula ahaztuko ez duen 40 eguneko oporraldia pasatu du, Lourdes Zubiaurre eta Pello Rubiorenarekin. “Bizkaiko Chernobil ize-neko elkarrekin eta Eibarko Ongizate sailak, inguruko herrietako familietan Chernobileko 19 ume jasotzeko deialdi publikoa egin zuen. Prentsan irakurri eta hoietako bat gure etxera ekartzia erabaki gendun, ez solidaritateagatik bakarrik; hemen hiru zentral nuklear ipini nahi izan zaben sasoi batian eta ondori-xuak zeintzuk izan leizken jendiari gogorazteko modu bat da”, azaldu digu Pellok.

Chernobiletik 30 km-ra dago Ivankiv, Ana bizi den herria. Aita, ama, aitona-amonak, lagunak,... denak ei daude gaixotuta. Hiru urte besterik ez zituenean gertatu zen istripu nuklearra. Orduetik tiroideetako glandula kaltetuta du erradioaktibitatearen ondorioz eta buruko, sabeleko eta bihotzeko minak izaten ditu lantzean behin. Era honetako egonaldietan “aire garbia eta alimentazio onari esker defentsak indartu eitzen jakuez eta hobeto pasatzen dabe Ukrainiako negu gogorra”. Batera eta bestera ibili dira,

atsedenik gabe, ahalik eta gauza gehixen erakutsi nahi izan diogu eta arratsaldero irtetzen ginan plaiara, Debara edo Zumaiara, Donostiako suak ikustera...” Euskal Herritik dena gustatu ei zaio Anari. Txillarrera iritsi zenean, bere logelako leihotik Sallobenteko parajea ikusi eta “ooooh” luze bat atera omen zitzaion ahotik, hango bistarekin liluraturuta. Janaria eta edaria asko gustatu zaizkio, “platanoak eta yogur mordo bat jan ditxu”. San Bartolome jaietan ere izugarri ondo pasatu du; zezenak eta ambientia ikusi, txarangarekin salto egin... eta goizaldeko 5etan erretiroa.

Txillarrekoek ez dute errusiera ez ukrainiera ezagutzen ez eta Anak gaztelania ere, halere, ez dute arazorik izan elkar ulertzeko. “Eguneroko ekintza arruntak izendatzeko hitzen lista bat eman ziguten, ukrainieraz eta erderaz: jestuekin ibiltzen ginan, dibujuekin!”. Lotsati xamarra izan arren “jilipollas”, “eskerrikasko” eta Gozategitarren “Emoistaxuz musutxuek” kanta ere bazekiela egiaztatu genuen. Alde egiterakoan erropaz eta opariz betetako maleta eramanean zuten. Bihotzean, berriz, Txillarrekoenganako eskerroneko sentimendua, ahazten ez den horietakoa.



Doris eta Marcia etxeberria.

Etxeberria abizena daramaten arren, bi emakume hauek EEBBetan jaio eta hazitakoak dira. Haien aita elgoibartarra zen, Toribio Etxeberria. Anai-arreba asko ziren eta etxean guztientzako dirurik ez. Horrela bada, 14 urte besterik ez zituela, Toribioren aitak, Pru-

dentziok, seme gaztea Arjentinara bidali zuen, senide batzuen etxera. Zenbait urte Arjentinan egin eta gero, EEBBera aldegin zuen Toribiok. Ingelesa ikasi zuen azken hizkuntza zen eta horrez gain beste sei ere bazekizkien: gaztelera, euskara, italiera, frantsesa, portu-

Ameriketara joan nintzen...

gesa... Toribiok xaboi enpresa batean egin zuen lan, kotxe mekanikari izan zen, aire egokituko enpresa batean jardun zuen eta Arabia Saudin bizi izan zen petrolio negozioa zela eta. Estatu-batu batekin ezkondu eta bi alaba izan zituzten: Doris, 70 urtekoa, eta Marcia, 67 urte dituen. Toribiok 14 urte zituen Euskal Herria utzi zuenean eta hurrengo itzuli zenerako 40 urte pasa ziren. Bien bitartean, senitartekoez apenas izan zuten batzuek besteen berri, "beldurrez etorri zen Elgoibarrera ez baitzekien zerekin egingo zuen topo. Bi arreba eta beste bi anaia aurkitu zituen". Dorisek azaldu

digunez, "gauza asko kontatzen zizkigun Elgoibarra buruz. Asko gogoratzen zen honetaz guztiaz. Bere bihotza hemen zegoen baina familia Californian zuen". Oso txikiak zirela izan zuten aukera aitaren sorterrira ezagutzeko, "duela 23 urte berriz etorri nintzen nire senar eta alabarekin eta ordutik hona aldaketa asko ikusi ditut. Gaur egun askoz garbiagoa, askoz aurreratuagoa dago. Bizitza maila hobearrekin egin dut topo, kultura gehiagorekin". Dorisek Nevadako Renoko Unibertsitatean euskara landu zuen bertako liburutegian, "interes handia daukat bertoko hizkuntzari buruz. Baina ikastea oso zaila da". Marciak ez du gaztelera hitzegiten baina ingelesez azaldu digunez "herri txiki eta atsegina iruditu zait, jendearen artean nabarmena da nolabaiteko adiskidetasuna dagoela". Jaiak bizi-tzeko aukera izan dute eta benetan disfrutatu dutela aitortu digute, "txistulariak asko gustatzen zaizkigu, dantzak...". Hiru aste egin dituzte Elgoibarran eta Californiara laurburu bana eta 22 argazki karrete daramatzate. Hurrengo noiz itzuliko diren ez dakite. Dena dela, "espero beste 23 urte pasako ez denik". Besterik ez bada ere, "rabak" jatera.

Ruta Quetzaleko lagunak bisitatzer

Kasu honetan mintzagai dugun pertsonaia ez da elgoibartarra. Bai, ordea, aski ezaguna guztiontzat. **Miguel De La Quadra Salcedo** Zarautzen omen zegoen Argiñano bisitatzen. **Añana misiolari elgoibartarra** San Bartolome jaietara etorria zen eta berak eta Mirari Osorok, duela hiru urte inguru Ruta Quetzal-en parte hartu zuenak, De La Quadra Salcedo Txiki egunera gonbidatu zuten. Esan eta egin. Txiki eguneko goiza Elgoibarren pasa zuen. Karakate elkartean izan zen zerbait hartzen eta bertako perretxiko erakusketa ikusten, perretxiko gida bat ere oparitu zioten. Kaleko giroa ezagutzeko aukera ere izan zuen, txikiteoa, ardoa

botatzeko hemen dugun ohitura gertutik bizi izan zuen, jendea hurreratu zitzaion autografoak sinatzeko eskatuz, munizipal ere gerturatu zen argazkia ateratzeko asmoz.... Goiza gustura pasatu eta alde egin zuen, aurretik Añanari eta Mirariri datorren urtean Guatemalara joateko gonbitea luzatuz.




Mirari Osoro, Miguel De La Quadra Salcedo eta Añana.

● *Inazio Bereziartua*

TALDEKO KLASEEN
ORDU eta **EGUNAK** (koral,
lenguaia musikala eta dantza
barne) Plaza Txiki eta
Merkatu Plazako iragarki
tauletan daude.

INSTRUMENTUEI
DAGOKIONEZ,
ostegunean ordutegia
jaso ez zutenei,
astelehenean, hilak 16,
banatuko zaie.



INFORMAZIO GEHIAGO: Plaza Agirre 3 - 1 (ordutegia: 5-7)

Kilometroak 96 joko

Irailean zehar BARRENen Kilometroak 96 joko argitaratuko dugu. **Beder eta Sei**, Kilometroak-eko maskotak, **BARREneko orrialdeetan ezkutatu egin ditugu**. Zure lana, irakurle, astero-astero non dauden asmatzea izango da. Orri guztiak arreta handiz mihatu eta Beder eta Sei non dauden asmatzen duzuenean, beheko txartela bete eta datorren asteartea (hilak 17) baino lehen BARREnera ekarri. Asmatzen duzuen guztion artean Kilometroak 96ko dendan trukatu ahal izango diren 5 agiri zozketatuko dira astero-astero.

Adi egon eta atera lupa!!

Banoa, banixe,

Euskara, bai horixe!!



BARREN astekariak eta Kilometroak 96k antolatutako lehiaketa.

Kilometroak 96 joko (Irailak 13)

Non ezkutatu ditugu Beder eta Sei? orrialdean.


Izen-abizenak:.....Tel.:.....

103 buru aurkeztu ziren limousin lehiaketara

Pertsona asko hurreratu zen Elgoibarrera Baserritarren egunean. Aurten, gainera, feria berezia zen, Euskadiko Limousin txapelketa ospatzen baitzen. Lehiaketan aukeratutakoak izango dira Espania mailako lehiaketara aurkeztuko diren ordezkariak. Egun osoan zehar giroa gori-gori egon zen, bai Plaza Txikian bai eta Handian ere. Batean Limousin ganadu ederra ikustera joanak, bestera sagardoa dastatu eta txorizoa jatera.

15 pertsona inguruk hartu zuen parte Baserritarren eguneko feriarren muntaketan. Horiatariko batzuk DEBEMENeko brigadakoek ziren, besteak auzoetako bolondresak. Asteazkenean hasita, ostiral gauean amaitu zuten muntaketa-ekin.

Lehenik eta behin txoznak muntatu zituzten, Gabon Zahar ferian erabiltzen direnak. Bestetik, Muskizetik ekarri zituzten ganadua egoteko azpiko egurra eta askak egiteko burniak. Horrez gain, 400 pardel las-to ekarri zituen Diputazioak. Dena dela, jakin



Jon Arruti Beizamarra izan zen txapelketako irabazle nagusia

ahal izan dugunez, las-toa nahiko kalitate eskasekoa zen jateko eta larunbatean herriko base-ri batetik gehiago ekarri behar izan zuten.

25.000 pta.ko saria

25.000 pta.ko saria zegoen irabazlearentzat eta horrez gain, buru ba-koitzeko 20.000 pta.ko dieta eman zuten. Lehiaketara 103 buru aurkeztu ziren eta horiez gain salmentarako beste 20. Epaitzeko orduan hainbat gauza izaten dira kontuan. Besteak beste, haragitarako den, hazitarako edo bietarako. Era berean, sementalei atzeko hankak begiratzeko zaizkie, behie salto egiten dietenean hanketan akatsik ez izatea, fuerte izatea. Forma ere izaten da kontuan, koloreari dagokionean gorrixka izan behar da baina beti ere argia, ilun xamarra bada, benetako limousina ez de-

lako errezeloa dago eta.

Limousina oso arraza ona da. Besteak beste, Euskal Herriko larre menditsueta ibiltzeko ez du inolako arazorik, berehala aklimatzen da, haragitarako oso jenero ona ematen du, jaiotzean oso txikia da eta arazorik ez du ematen... Gauza on guztiek bezala, limousinek ere beren burua nahiko garesti saltzen dute. Bataz beste, sei hilabeteko buru batek 250.000 pta. inguru balio dezake baina bada milioi bateko sementalik ere. Kontuan izan behar da, limousinak aurkezpen karta daramatela eta baserritarrek ezagutzen duela erosten duenaren jatorria zein den.

Aurtengo ferian ikusitakoaren arabera, oso kalitate ona antzeman da ganadu limousinari dagokionean. Antolatzaiz-

GANADU SARIKETA

Urte bete baino gutxiago

Fidel Abans (Orozko)

1 eta 2,5 urte

Jon Arruti (Beizama)

18 eta 24 hilabete

Fidel Abans

2 eta 3 urte

Juan Altuna (Usurbil)

36 eta 54 hilabete

Regulez-Artetxe Hondasun Elkartea (Gordexola)

54 hilabetetik gora

Jon Arruti

ZEZENAK

2 urtetik

beherakoak

SAT Ganalar (Asturias)

2 eta 4 urte

J.Maria Aldalur (Tolosa)

4 urtetik gora

Juan Altuna

Sortarik onena

J.Maria Aldalur

SAGARDO LEHIAKETA

Simon Etxeberria (Hernani)

SAN BARTOLOME FERIA SAN BARTO

Ganadua ez zen izan protagonista bakarra Baserritarren egunean. Sagardo dastaketa eta lehiaketa ere izan zen, herri kirolak, bertsolariak, trikitalariak... Feria bere osotasunean antolatu zen, konpleto-konpleto. Sagardo dastaketara jende mordo bat hurreratu zen, urtero bezala. Sagardoa eta txorizoa doan banatzen direnean plaza gainezka egoten da! Lehiaketa hernaniar batek irabazi zuen, Otsue- Enea baserriko Simon Etxeberriak. Herri kirolei dagokionean, berriz, bi herriren arteko lehia izan zen ikusgai. Mutriku nagusitu zen Berritxuko taldearen aurrean. Ziarda, Meabe eta Azpillagak jarri zuten umorea bestela ere festa giroa zegoen tokian eta kalez kale ibili ziren Trikitalari Eskolakoak fandango eta arin-arin soinuez jantziz bisitari eta herritarren belarriak.



Egun ederra benetan!



Nora begira zaude? Zatoz lehenbailehen karneta atertzeko?

LABRANAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

LOME FERIA **SAN BARTOLOME FERIA**



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

Jesus Agirrebeña:

Arostegi baserrikoa da Jesus Agirrebeña. Ezkondu zenetik kalean bizi den arren, San Lorentzo auzoarekin ez ditu inondik inora lokarriak eten. Izan ere, baserrira sarri joateaz gain, Sallobente elkarteko bazkide ere bada. Gaurkoan gure artera ekarri badugu, San Bartolome jaietako Sagardo dastaketa eta lehiaketari buruz hitzegiteko izan da. Orain 10 urte, Sallobente elkarteak hartu baitzuen antolaketaren ardura.

- Sagardo Dastaketa eta Lehiaketaren XIII. edizioa izan da aurtengoa.

- Bai, baina lehenao Mutxikin elkartiak eitxen zaban hori. Hiru urtian egon zian eta laga zebenian Udaletxiak guri eskaini zigun.

- Dena dela, hasieran ez zen lehiaketarik egiten.

- Ez, dastaketa bakarrik. Oin dala 8 urte hasi ginan konkursuakin.

- Aurten 15 partehartzaile etorri dira. Kopuru ona?

- Bai, gitxi gora-behera urtero berdina izaten da. Hernani, Astigarraga eta Azpeitxi aldetik etortzen dia. Askok errepikatzen debe.

- Ordaintzen al zaie?

- Bazkarixa egunian bertan. Ostantzian beti ematen jakue orogarriren bat, aurten kuadro bat, eta Udaletxeko eskuduakin bandeja bat.

- Lan handia al da antolaketata?

- Gu sagardogiliei abisatiaz enkargatzen gera. Ostantzian, lana egunian bertan izaten da. Dana montau, txo-

rizuak egosi, ogixa moztu eta zerbitxu...

- Eta doan denez, jendea eskean, ez?

- Ezin laike sinistu! 125 ogi erosten dia, 100 kilo txorizo eta danera 1.000 botila sagardo. Dana ordu t'erdixan gastatzen da. Eta gehixo egongo balitz, gehixo gastuko litzake. Jendia mahai gainera botatzen da txorizua hartzera.


- Sagardoa beirazko basoan edan behar da, ez?

- Bai, alde haundixa dao. Guk lehen hainbeste basu eruaten genduazen eta gero horiek garbitzen jun jendiak erabili ahala. Gero, sanidade asuntuagatik erabaki zan bakoitzari basua hoge duruan saltzia. Oin, nahi dabanak hasieratik daka bere basua nahi beste sagardo erateko. 900 baso saltzen dira.

- Zenbat pertsona ibiltzen zarete antolaketan?

- 40 bat lagun, danak soziedadekuk, edo soziuen semiak...

- Eta basokadarik edateko



astirik?

- Ez da egoten. Nahikua lan jendian basuak etengabian betetzen!

- Sagardo on batek zer behar du?

- Dana begiratzen da, koloria, zaporria, testuria... Baina bakoitzan paladarran araberakua izaten da, batzuei gogorra gustatzen jakue, bestiei zikua...

- 15 partehartzaile eta bi buelta bakoitzeko. 30 sagardo baso edaten dituzte epaimahaikideek. Ez al da askotxo?

- Ohitxuta daude. Gero gurekin etortzen dia bazkaltzera normal-normal eta ez dake trabarik berriz sagardua

edateko.

- Horrenbeste sagardo edanda, ez al dira antzerakoak egiten?

- Trago batetik bestera, txorizua, ogixa eta arraultza gogorra jaten dabe. Hola, aurretik edandako sagarduan gustua kentzen jakue.

- Eguerdian bazkaria egiten duzue.

- Bai, antolatzaileak eta partehartzaileak, danak batera San Lorentzoko soziedadian. Soinujolia eta panderojolia ere egoten dia eta harek jarritako umoriakin eta bazkal osteko giruakin, beti hasten da bat edo bat bertsoetan edo txistiak kontatzen... Egun politxa izaten da.



Karrikizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49






URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGURORAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Asier Albizu, Idoia Etxola eta Iñaki Oñederra.

Gogorra egin al zaizu oporretatik bueltatzea?



ANDONI MUJIKA
15 urte, ikaslea

Ondiok oporretan nao. Institutuan ez gera hurrengo asterarte hasten. Alde batetik badakat gogua has-teko baina gero beti zaog hurrengo oporren zain.




M. JESUS LAZKANO
35 urte, etxekoandrea

Piskatxo bat beti. Parte batetik gogua dakazu baina bestetik penia ematen dosta. Betiko monotonian sartzen zera, ordutegi bat jarraitu biharra...



GORKA AZPILIKUETA
25 urte, tekniko-elektrikoa

Ez naiz lanian hasten astelehenerarte. Ordutik aurrera esango dizut. Ondiok ez dot pentsau zer izango dan bueltatzia. Lehenengo astia izaten da txarrena.



IMANOL CALLEJA
14 urte, ikaslea

Aurten Institutuan hasten naiz eta badakat curiosidade piska bat hasteko. Gainera batzuetan aspertu eitzen zera hainbeste oporrek.



BEGONA RODRIGUEZ
43 urte, haur zaintzailea

Ez zait oso gogorra egin. Abuztu osoa izan dut oporretarako. Bueltatzea beti kostatzen da piska bat baina oso gustura nago ume bat zaintzen.



KARMELO LOPEZ
43 urte, harakina

Nik ez daukat oporrik, urte guztian egiten dut lan. Aurten 366 egun. Astebukaera eta zubiak jai egiten ditut eta astelehena beti egiten da aldapa gora.



Jesus Fernandez Quintas

1996ko irailaren 8an hil zen 32 urte zituela.

Bizitzeko gogo gehien dutenei deitzen die sarritan heriotzak. Zurekin ere hala gertatu da. Mundu honek laga digun kontraesanetariko bat, akaso? Jesus, zauden tokian zaudela segi zaren bezalakoa izaten.

Zure kuadrilakoak

■ Sorotan Beleren kontzertua Kiroldegian

Kilometroak 96 jaiaren atarian, Ikastolen Elkartek eta San Bartolome Ikastolak elkarrekin antolaturik, Sorotan Bele musika talde ezagunaren kontzertua izango da bihar, hilak 14, Kiroldegiko kantxan. Talde hondarribitarrak "Jonen Kezkak" izeneko azken diskako kantak bai eta Euskal Herri osoan ezagunak bihurtu dituzten kantak ere eskainiko ditu. Gazte hauen saioa ikusteko ez da ezer ordaindu behar izango, erabat doan izango baita. Kontzertua gaueko 11etan hasiko da.

■ Marrazketa ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko marrazketa artistiko ikastaroa antolatu du. Klaseak hilaren 23an hasi eta urriaren 11rarte luzatuko dira. Ordutegia arratsaldeko 6etatik 8etara bitartekoa izango da. Izena emateko Egurrera zuzendu.

■ Txinosen laugarren taldea Elgoibarren

14 ikasle, itzultzaile bat eta koordinatzaile batez osatutako txinar taldea gaur gauean, hilak 13, iritsiko da Elgoibarrera. IMHra datorren laugarren taldea da eta momentuz berauek izango dira azkenak. Talde hau abenduaren 3ra arte egongo da gure herrian eta landuko dituzten atalak makinaren mantenua eta arazo arruntaren konponketa izango dira. Txinarren ongi-etorri ekitaldia astelehenean, hilak 16, izango da Udaletxean, 12etan.



Sei ahate eder hauek Deba ibaian gora eta behera igerian ikusteko aukera izango du Txankakua zubi aldera hurreratzen den edonork. Udaletxeok jarri zituzten ahateak ibaian. Gillermo Garate alkateak esandakoaren arabera, "lehenengo sei ahate txiki bota zian eta Altzolan beste 12". Elgoibar inguruan askatu ziren ahate txikiek Madala aldean egin omen dute habia. "San Bartolome inguruan beste bederatzia ahate bota zian, hazitxuauak hauek". Hegoak ebakita dituztenez, habia egingo duten esperantza dago, baina horretarako "bateonbategi agindu zun bezela, txabolie ein bihako zakue".

Injinerutza ikasketak martxan jarri dituzte IMHn

Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak goi mailako Enpresa Injinerutza ikasketak eskainiko ditu 96-97 ikasturteko aurrera. Bordeleko Goi mailako Injinerutza Industrialeko Ikasketa Zentroarekin (CESI) bateginik jarri ditu martxan IMHko zuzendaritzak aipatu ikasketak. Helburua enpresa bateko produkzio prozesuan integratutako injinerua prestatzea da. Hiru urteren buruan ikasleak enpresako lanaren eta ikasketen artean banatuko ditu klase orduak. Lehenengo urtean 30 ikasle hartuko

dituzte gehienez. 25 urtetik beherako hautagaiek industria ataleko Lanbide Heziketako titulua eduki beharko dute eta hautatzen dituen enpresako langileak izango dira ikasleak. Hiru urteko prestakuntza atzerriko enpresetan amaituko da. Aipagarria da hezitzaileak enpresetako profesionalak izango direla. Aurkezten diren guztien artetik IMH aurre-aukeraketa bat egingo du baina behin betiko aukeraketa enpresa bakoitzak egingo du, beti ere ikasle bakoitzaren proiektu industrialaren arabera.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Kilometroen diska kalean dago

Asteartean egin zuten Kilometroak 96rako prestatu duten diskaren aurkezpena. “Elgoibarko Musika” du izenburua eta lehenengo abestia “Banoa, banixe” da, Kilometroen abestia. Egilea Alberto Iriondo da eta letraren asmatzailea Mari Kruz Intxausti, ikastolako irakasleak biak.

Astearte iluntzean jendetza elkartu zen Kultur Etxean diskaren aurkezpen ekitaldian. Beder eta Sei bertan izan ziren, bai eta alkatea, Mari Jose Ulazia Kilometroak 96ko koordinatzailea, abestiaren egileak eta “Banoa, banixe” abestian kantatu duten haurrak ere. Ulaziak diskaren nondik norakoak ikuslegoari azaldu ondoren, abestia entzuteko aukera izan zen. “Kantu alai” eta “martxoso xamarra” eta antzerakoak adierazi zituzten han zeudenek abestia entzun ondoren.

“Elgoibarko Musika” konpakto eta zinta formatoan eskuragai

dago. 18 abestiz osatua dago eta partehartzaile denak dira elgoibartarrak Drindots taldea izan ezik: Koska, Mauxitxa, Elgoibarko Dultzaineroak, Gelatxo, Trikitilari Eskola, Udal Txistulari Taldea, Itxaropena abesbatza, Udal Musika Banda, Parroki abesbatza, Alberto Iriondo, Albatross, Zigor Gazkez, Zokoan, 6Nemen9, Ehun Kilo, Kokoteraino eta Sexual Perbers.

Grabazioa Elkar-eko estudioetan egin da dago Jean Phocas teknikariaren eskutik. Diskaren azala Zubiaurreren diseinua da.



Diskan parte hartu duten elgoibartarrak agertzen dira argazkian.

■ Informatika Institutuan

Elgoibarko Herri Institutuak informatikako 200 orduko ikastaroa antolatu du Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin. Ikastaroa arratsaldean izango da eta langabetuei zuzendurik dago. Landuko diren gaiak informatikako aplikazioak, multimedia, informazio sareak eta Internet izango dira. Interesatuek 74 44 80 ra deitu.

■ Buztin ikastaroa

Dagoeneko martxan dago Lurki Elkar-teak antolatu duen haurrentzako buztin ikastaroa. Astelehenean hasi eta hilabete osoan zehar luzatuko da aipatu ikastaroa Aita Agirre plazako lokaletan. Norbaitek zeramikaren nondik norakoak ikasi bahi baditu eta oraindik izena eman ez badu, Aita Agirrera zuzen dadila (ezkerreko lokala).

■ Gripearen txertoa emateko kanpaina

Datorren astelehentik aurrera, hilak 16, gripearen aurkako kanpainari ekingo zaio. Gaixo kronikoek eta 65tik gorakoek urriaren 31era arteko epea izango dute txertoa hartzeko. Txanda hartzeko aurrez deitzeko aukera dago 74 33 54ra.

■ Errioxara txangoa Jubilatuen Etxearekin

Jubilatuen Etxeak Errioxako hainbat toki bisitatzeko txangoa antolatu du hilaren 25erako. Elgoibartik goizeko 8,15etan irten eta honako herri hauek inguruko dituzte geldialdiak: Najera, Fuenmayor eta Logroño. Irteeraren zenbatekoa 2.800 pta.koa da. Izena emateko goizeko 10,30etatik 12etara bitartean Jubilatuen Egoitzatik pasatu bazkide agiria eramanez.

■ Itzulpen-lehiaketa

EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak “Literatura Unibertsala” bildumarako itzulpen-lehiaketa antolatu du. Itzulgaien zerrenda eta xehetasunak hilaren 24tik aurrera emango dira ezagutzera elkartera deituta. Tel: 27 71 11 (goizez).

■ Euskara klaseak herriko euskaltegietan

Elgoibarko bi euskaltegietan, AEK eta Udal Euskaltegietan dagoeneko irekita dago 96-97 ikasturterako matrikula epea. AEK-k zera eskaintzen du: EGA, euskara dakitenentzat idaztea eta irakurtzea, euskaraz berba egiteko ohitura berriz hartzea, ikasleei euren beharretan laguntzeko klaseak, etab. Ikastaroak goizez, arratsaldean eta gaez izango dira astean 11 edo 4 ordu emanez. Udal Euskaltegietan matrikula epea hilaren 27ra arte dago irekita. Emango diren mailak hauek dira: EGA, euskalduntze eta alfabetatze. Ikasle eta langabetuentzat prezio bereziak daude bai eta beka sistema ere.

Jose Ignacio Laskurain:

“Itsasoak egunero sorpresa bat dakar”

Duela 48 urte jaiotzen elgoibartar honek badu hamaikatxo istorio egunen batean bere bilobei kontatzeko. Izan ere, Ozeano Indikoa, Pazifikoa eta Atlantikoa behin baino gehiagotan zeharkatu dituen itsasgizona da Jose Ignacio. Ogibidez merkantzi marinela

da eta kapitain agiria baduen arren, sekula ez du funtzio hori bete itsasuntzi batean. Orain hogeita sei urte atera zen lehen aldiz itsasora. Gaur egun bere kontura egiten du lan lehorrean baina itsasora gustura itzuliko litzatekeela aitortu digu.

- Zergatik kapitain?

- Bokazioz. Nire aitona Bermeokoa zen eta itsasontzi batzuk zituen Bilbon. Txikitari askotan eramanen ninduen itsasontzian ibiltzera.

- Halere, sekula ez zara kapitain izan.

- Ez. 1., 2. eta 3. ofiziala izan naiz.

- Zein da ezberdintasuna?

- Kapitainak agindu egiten du eta ofizialak itsasontzia gidatzen du. Ofizialek ere badute kapitain agiria baina bakar batek agintzen du.

- Zein merkantzia mota eramaten zenuten?


- Hasieran batez ere garia eta artoa ekartzen genuen baina gero konpainia amerikar batean hasi nintzen eta mineralak garraiatzen genituen.

- Noraino iritsi izan zara?

- Mundu guztitik bidaiatu izan dut. Ozeano Pazifikoa, Indiko nahiz Atlantikoa ibilitakoa naiz baina urrutien Australiara joan nintzenez.

- Janariari dagokionean, zer?

- Askotan etxean baino hobeto. Egunero egiten zen ogia, esne opilak. Portuetan elikagaiak erosi eta egunero bertan jaten



“Gay zikloiaren begi barruan egon ginenean heriotza gertutik ikusi nuen”

genituen.

- Eta norbait gaixotzen zenean?

- Itsasontzietan bertan operatu ahal izateko materiala badago. Gainera, behar izanez gero, irratiz Erromako sendagile erakunde batekin jartzen ginen harremanetan eta haiek esaten ziguten zer egin.

Behin Pazifikoa geundela batek istripua izan zuen eta ebakuntza egin behar izan zitzaion sabelean. Hawaitik hegazkin batean etorritako hiru mediku parakaidasean bota ziren eta itsasontzian bertan operatu zuten.

- Zenbat denbora egiten zenuten itsasora?

- Normalean 5 edo 6 hilabete. Gehienez 13 hilabete.

- Eta astebukaeratan?

- Guardian zeudenek izan ezik, besteek ez zuten lanik egiten. Barbakoak, mus txapelketak, partxisa eta abar antolatzen ziren. Futboleak eta palan ere sarri jolasten genuen.

- Deskribatu itsasoa.

- Handia eta ezezaguna. Itsasoa ez da ura bakarrik. Ia egunero sorpresa berri bat dakar.

- Itsasoa eta lurraren arteko desberdintasuna?

- Itsasoa askoz lasaia da bizitzera, ez dago estresik.

- Heriotza gertutik ikusi al duzu itsasora?

- Bai, “Gay” izeneko zikloiaren begi barruan egon ginenean. Oso gaizki pasa genuen, olatuak gainetik pasatzen ziren eta aparra baino ez zen ikusten. Radarrak ez zuten funtzionatzen, segundo batzuk itsasontziko makina guztiak geratu egin ziren, argiak itzali... Isiltasun haren erdian sentitzen duzun bakardadea deskriba ezina da. Segun doek orduak ziruditen.

- Erraza al da familia distantzian mantentzea?

- Seme-alabak jaiotzean zailagoa da baina ohitu egiten zara. Emaztea sarri joaten zen portuetara eta nirekin asko bidaiatu du.

- Egia al da kapitainek portu bakoitzean emakume bat dutela?

- Lehen kapitainak egiten zuen guztia, tripulazioa kontratatu... Horregatik portuan hilabete asko egoten zen. Kapitain bat 5 edo 6 urte egon zitekeen bidaiatzen etxera joan gabe eta ez da harriztekoa topikoa egia izatea. Gaur egun, ordea, ez da horrenbeste denbora egiten etxetik kanpo.

AMAIA GOROSTIZA

Pilar Etxaniz

Soraluze Leihoak dendakoa



- **Munduko leihoa irekita, zein usain sartuko litzateke?**
▶ Gaur egun biolentziarena.
- **Eta zein sartu beharko litzateke?** ▶ Pakia eta errespetuana.
- **Zein bista izan nahi zenuke etxeko leihotik begiratuta?**
▶ Daukadana gustatzen zait, mendia, lagunartea...
- **Itoarazten zaituen egoeraren bat?** ▶ Jendien exijentzie.
- **Noren edo zerengandik isolatu nahi zenuke?**
▶ Oin jendien artien dauen tentsiuingandik.
- **Aurkezlerik gustukoena?** ▶ Maddalen Iriarte.
- **Eta ezin duzuna ikusi?** ▶ Patxi Alonso.
- **Zure burua beiran isladatuz gero, zerk destakatuko luke?**
▶ Begiek.
- **Zein oroitzapen aterako zenuke armairutik?**
▶ 13 eta 18 urte bitarteko epokie.
- **Diruak zorientasuna ematen al du?** ▶ Bai, seguru baietz.
- **Sekula begiratu al duzu ohe azpian norbait ezkutatuta zegoen ikusteko?** ▶ Ez, ez naiz sekula bildurtixa izan.
- **Zein horoskopo duzu?** ▶ Libra, baina ez dot sinisten.
- **Zein eraikuntzari jarriko zenizkioke leihoak?** ▶ Beharra dakan edonori debalde, jende inportantiak bestela ere badaka nahikua.
- **Umetako ilusioa?** ▶ Lagunekin ibiltzia.
- **Gona motza ala txorkatilarainokoak?**
▶ Gonarik ez, prakak bakarrik gustatzen jataz.
- **Daukazun luxuetatik, zeini egingo zenioke uko?** ▶ Pistinari.
- **Gorputz osoko ispilurik ba al duzu?**
▶ Bai, baina ez naiz oso presumida eta ez naiz askotan begiratzen.
- **Kotxe berri bat erostekotan?** ▶ Chrysler Voyager bat.
- **Denbora librea zertan pasatzen duzu?** ▶ Nere umiekin.
- **Egun euritsuek zer esaten dizute?**
▶ Ez naiz deprimitzen. Negua gehixo gustatzen jata uda baino.
- **Leihoetarako materialik onena?**
▶ Gaur egun puente termikoko loturako aluminioa.

BERRIRO LANERA

Doinua:

Triste bizi naiz eta

Ekainetik aurrera
ditugu oporrak
jende guztiarentzat
dira luzeenak
hondartza zein mendira
joateko egunak
ondo pasatzen dugu
behintzat gehiengoak.

Iraila heldu zaigu
berriz lanarekin
ta neguko martxari
guk beharko ekin
eskolara bueltatu
gure lagunekin
eta Gabonak arte
lan ugari egin.



ITZIAR LEIARISTI

B
E
R
R
I
R
O
L
A
N
E
R
A



*Abuztuaren 20an, 17 hilabete zituela hil zen
MIKEL GARAY LANDA haurraren sendiak
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



120 aparkaleku berri herrian


Udalak 120 auto aparkatzeko lekua egokitu du Alkortako telar zaharraren inguruan. Bertan egindako lana lurraren asfaltatzea eta argi gehiago ipintzea izan da. Aparkaleku publikoak denez, hori adierazten duen seinalea jarri da. Zirkulazioari dagokionean, Bernardo Ezenarro kaletik eta Trenbide kaletik behera datozen autoek aparkaleku publiko modura jarritako lekuraino joan ahal izango dute, maniobra hori egiteko beharrezko seinaleak jarri direlarik.

Ur, zabor eta estolderia zergak

1996ko hirugarren hiruhilabeteari dagozkion ordainagiriak hil honen 27ra arte ordaintzeko epea dute oraindik ordaintzeke duten guztiek. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20a gehiago kobratuko zaie. Xehetasun edo argibiderik behar izanez gero, 74 44 14 zenbakira deitu edo udal bulegotik pasatu goizeko 11etatik 1era bitartean.

GILLERMO GARATE: “Herriko pertsonen informazioa zuten jaietan istiluak sortarazi zituztenek”

San Bartolome jaietan istiluak sortu zituztuenei informazioa eta laguntza ematea leporatu zien Guillermo Garate alkateak Elgoibarko MLNV inguruko pertsoneri, joan den ostiralean eman zuten pretsaurrekoan. Krokis batek lagunduta eta Udaltzaingoaren datuekin, 24ko goizaldean gertatutakoa azaldu zuen Garatek.



Istiluen berri eman zuten Garatek pretsaurrekoan.

Haren hitzetan “gure herriko jendeak emandako informazio zehatzari eta hauen laguntzari esker antolatu ziren gau hartako istiluak”. HBkoen bertsioa, hau da, “paisanozko Ertzainak harrika hasi zirenean gertatu zirela istiluak” esatea paranoikoa da, eta gehiengoaren iritzia zapaltzearen, iluminatu eta mesianiko batzuen ahalegina zein puntutaraino hel daitekeen erakusten du”. Alkateak adierazitakoaren arabera, “Madalako zonaldean ez sartzeko agindua eman genuen, baldin eta gauzak bere onetik ateratzen ez baziren”.

Gertatutakoaren kontakizuna

Garatek hainbat galdera plazaratuz berregin zuen gau hartan gertatutakoa. “Enkaputxatuak kanpotarrak izanik, nola zekiten non zeuden kontenedoreak eta urtero lekuz aldatzen den komuna? Madala argirik gabe utzi zuten. Nola eza gutzen zuten zonalde hori erregulatzen duen koadro elektrikoaren kokapena? Non zeramatzaten kandaduz eta pletina sendo batez itxitako koadro elektrikoa

bortxatzeko tresnak? Nondik atera ziren koktelak? Eta nondik hurrengo egunean agertu zen trenbideko harriz jositako zakua? Erantzunak argi daudela uste dut”. J. M. Castañares zauritu eta kalte handiak eragin zituzten istiluen arduradunak MLNV inguruan dabilen herritarrek dira Garateren ustez. “Militarki antolatutako talde profesionala zen. Bazekiten non jarri barrikadak. Argia itzaliz eta koktelak emanez lagundu zitzairen”.

Manifestuaren aldeko atxekipena

PNV, EA, PSE, PP eta IU/EBren ize-nean “Elgoibarko Herriaren Aldarrikapena” izenburuko manifestua aurkeztu zuen Garatek amaieran. “Errespetuaren eta elkarbizitza baketsu baten aldeko konpromezuaren aldeko aldarrikapena” egiten duen testuan herritarren sinadura jartzeko eskaera luzatu zuen. Era berean, Jesus Mari Castañaresekin eta gainontzeko zaurituekin “elkartasuna adierazten dugu eta behar duten edozertarako prest gaudela jakinarazten diegu”.



JAVI OJEDA

Uztailaren 19an hil zen 27 urte zituela.


Bere emaztegai Mila Plaza eta kuadrilak ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Altzolako iturria

- Altzolako zubiaren eta Zelaia hotela izan zenaren aurrean, "Txoriko" etxearen hormaren azpiko aldean aurkitzen da itsatsia isurki bakarreko iturri publiko hau.
- Iturburu hau metal-ura ematen ari da etengabean, batz bestea 10-14 °ko hotz-beroan irteten delarik. Neguan edanez gero, epel sententzia izaten da eta udan edanez gero, berriz, hotzarena.
- Bainuetxeko ur beroa bezain ospetsua ez bada ere, hura baino lehenago ezagutu eta edaten zen Altzolan, haurrak arduratzen zirelarik pitxarrean edo txangilan etxera eramateaz eta altzolatarrak mahaian ez zen faltatzen.
- Metal-ur iturburu ugari omen zeuden garai batean Elgoibar eta Altzolako inguruetan: Mendaroko Plazako errota, Apatriz (Apraiz), Altzolabea, Kaskante, Artetxe, Andikano, Erreizaga eta Goenaga aipatu zituen 1853an Rubio sendagileak.
- Sendagile hidrologoek metal-urak sendatzeko gaitasuna duela kontsideratzen dute. Senda ur beroak dauden inguruetan, hau da, bainuetxe inguruetan irteten dira batez ere, hauen lagungarri eta osagarri izanik.

PELLO ARRIETA



Ana Epelde Aldalur (1902-1988)



- Azkoitiko Zuzeta baserrian jaiotakoa 1902ko urtarrilaren 20an.
- Bost anai-arreben artean bigarrena zen. Eskolako ikasketak amaituta, familian laguntzeari ekin zion, etxeko lanak egiteaz gain, alpagatak josten ere.
- Jose M. Aizpuruarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. 1949an Elgoibarrera etorri zen familia osoa.
- Baratza bat hartu eta han hazten zituen txerri, oilo, untxi eta abarrak laguntza handia izaten ziren familieren diru-sarrentzat.
- Oso bikote elkartua osatzen zuten Ana eta senarrak. Sinesmen handikoak eta ezagunak ziren herrian.
- Emakume alai zen. Zaletasun handia zion ilara biko soinuari eta panderoa ere jotzen zuen lantzean behin. Gogoko zituen esku pilota, euskaldun abestiak eta trebea zen jostun lanetan bai eta jertseak egiten ere.
- 1988ko martxoaren 28an hil zen 86 urte zituela.

JUANITO GOROSTIZA



*Uztailaren 24an, 83 urte zituela, hil zen
JUANITO GARATE GARATEren sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



MOTZAK

Besaidera eta Ozara irteera Morkaikorekin

Hil honen 15ean Besaide mendian hildako euskal mendizaleen oroitzapeneko eguna ospatuko da Aramaio-ko Orixol M.E. eskutik. Besaidera joateko Morkaikok irteera antolatu du. Bestalde, hil honen 28 eta 29an Ozako haranean kokatzen den Gabarditoko aterpera irteera antolatu du Morkaikok. Castillo de Acher (2.331 m), Bisaurin (2.669 m) eta beste mendi batzuk ere egiteko aukera izango da. Bi irteeretan izena emateko lehenbailehen Morkaikoren egoitzatik pasatu asteazken edo ostiral arratsaldean.

Futbol emaitzak eta asteburuko agenda

Elgoibarko Club Deportivoko hirugarren mailako eta lehen erregionaleko taldeek liga hasi berri dute. Gainontzeko mailetan laister hasiko da liga eta poliki-poliki emaitza guztiak emango ditugu argitara. Momentuz hauexek dira eskuratu ditugunak:

Haundi 0 - San Pedro 2
Intxaurren 0 - Elgoibar 0 (1. erreg.)
Bestetik, larunbatean, hilak 14, partidu hauek jokatuko dira Mintxetako futol zelaian:
12,00 Urki 1 - Urki B (Jubenilak)
15,00 Urki - Zarautz (2. erreg.)
17,00 C.D. Elgoibar - Segura (1. erreg.)
Igandean, hilak 15:
10,00 Gazteak - Arrasate (jubenilak)
13,45 Eibartarrak - Lagun Onak
17,00 C.D. Elgoibar - Aloña Mendi (Jubenilak).



Jose Ramon Zabala:

"Partiduetan ez da 'Aupa Elgoibar' entzuten"

■ **Klubeko presidenterik gazteena izango zara.** - Eon dia gaztiak baina agian ni izango naiz gaztiena.


■ **Presidente izateko gogoa zenuen ala ingurukoek behartuta izan da?** - Muxik laga ein bihar zaban eta harek nere izena eman zaban. Nahixo naban berak segitzia baina ni izan bihar banitzan presidentia, izango nitzala esan nion.

■ **Zerbaiti beldur?** - Ekonomikoki gertau leikenari. Dirua badao, baina iaz nahi baino gehixo gastau zan eta aurten presupuestua antzekua izango da. Taldia 3. mailan goian ikustia nahi badou ezinbestekua da. Aurten diru-sarrerak txikixauak izango diaz, ze kuponazua kendu ein digute eta Mintxetako sarrerak barregarriak diaz.

■ **Ikusle gutxi etortzen al da?**

- Bai. Lerun bete eitxen zan baina jendia ez da Mintxetara ixotzen. Mintxeta ez da Lerun baina hango girua sortu bihar da berriz. Han partidu batzuk jendiak irabazten zi-txuan. Gradetan ez da 'Aupa Elgoibar!' bat entzuten. Telebistan dauan eskaintzakin jendiak nahixo dau etxian geratzia.

■ **Aurten ere, jokari kanpotarrak nagusi.** - Bai, nagusi bai, baina Elgoibarko jende gehixo dao aurten. Hala ere, hemendik eta 3 edo 4 urtera gehienguak elgoibar-



tarrak izango dialakuan gaude.

■ **Hala ere, bazkideen beharra.**

- Bai, bazkidiak nola ez, biharrezkuak dia. Euren da kluba. Nik ez diazeneri esango niuen Elgoibar ez dala Reala, Athletic-a edo Madrila, baina gure herriko taldia dala eta danen laguntza bihar dala.

■ **Aurten gainera 7 talde.** - Jubenilen bigarren talde bat ein dou, danek eukitzeko jokatzeo aukeria. Oin 160 neska-mutil dakaguz eta inok ez dau kuotarrik ordaintzen. Bazkide ez diazen gurasuak, behintzat, bazkide izatera gonbidauko nitxuzke.

■ **Pedruskorekin zer gertatu da?**

- Kalian enterau ginan taldia einda zaola, euren kontu ein dabe dana. Gu irekita gaude edozertan laguntzeko.


■ **Aurten, igoera bai?** - Ekipua badao, 3. mailako onena. Gaizki hasi

bagera ere, ez dao dudarik promozian eongo gerala baina igotziana... Nik konfiantzia dakat. Hala ere, segundan aguantatzia zaila da bai deportiboki bai ekonomikoki.

Adina: 26
Aurten bete nahiko zenukeen ilusioa?
Mintxeta bete-betia ikustia
Talde bat? Elgoibar

K.E.Y. *ingles* akademia

96-97 IKASTAROA



- MAILA GUZTIAK
- E.O.I. (Eskola ofiziala) P.E.T.
F.C.E. (canbridge)
azterketetarako prestaketa
- PLAZA MUGATUAK

MATRIKULA IREKITA

Inskripzioa egiteko:
- Goizez 9,00-12,00 telefonos deitu
- Arratsaldez: 17,00-19,00 akademian


B. Ezenarro 5-3 esk. - Tel. 74 30 44



HAUNDIA 96-97



Kike Ormaetxea
entrenatzailea



(Eibar)
Iban Larrañaga



22 urte,
atezaina
(Ermua)




Igor Prieto
19 urte,
atezaina



(Deba)
Joseba Zubizarreta



28 urte,
atzelaria
(Azpeitia)



Gorka Leonardo
21 urte,



atzelaria
(Elgoibar)
Iker Beitia



25 urte,
atzelaria
(Eibar)



Jon Argoitia
21 urte,
atzelaria
(Ermua)




Xabier Alonso
28 urte,
atzelaria
(Elgoibar)



Asier Arzamendi
22 urte,
atzelaria



(Elgoibar)
Javier Gurrutxaga
21 urte,



atzelaria
(Elgoibar)
Aitor Treviño



23 urte,
erdilaria
(Eibar)



Gaizka Lazarobaster
22 urte,
erdilaria



(Mendaro)
Migel Díaz
27 urte,



erdilaria
(Azkoitia)
Aiert Zinkunegi



19 urte,
erdilaria
(Deba)



Joseba




E G U T E G I A

- (96-09-01) **Balmaseda 2 - Elgoibar 0** (97-01-12)
- (96-09-08) **Elgoibar 0- San Pedro 2** (97-01-19)
- (96-09-15) **Basconia - Elgoibar** (97-01-25)
- (96-09-22) **Elgoibar - Aloña Mendi** (97-02-03)
- (96-09-29) **Urola - Elgoibar** (97-02-09)
- (96-10-06) **Elgoibar - Zorroza** (97-02-16)
- (96-10-13) **Elgoibar - Alaves B** (97-02-23)
- (96-10-20) **Lagun Onak - Elgoibar** (97-03-02)
- (96-10-27) **Elgoibar - Hernani** (97-03-09)
- (96-11-03) **Tolosa - Elgoibar** (97-03-16)
- (96-11-10) **Elgoibar - Touring** (97-03-23)
- (96-11-17) **Amurrio - Elgoibar** (97-03-30)
- (96-11-24) **Elgoibar - Ondarroako Aurrera** (97-04-06)
- (96-12-01) **Arratia - Elgoibar** (97-04-13)
- (96-12-08) **Elgoibar - Santurtzi** (97-04-20)
- (96-12-15) **Durango - Elgoibar** (97-04-27)
- (96-12-22) **Elgoibar - Getxo** (97-05-04)
- (96-12-29) **Llodio- Elgoibar** (97-05-11)
- (97-01-06) **Elgoibar - Amorebieta** (97-05-18)

Aro berri bati ekin dio Kiroldegiak Udalaren gestiopean

Udal Kirol Patronatua sortu zenetik, Elgoibarko kirol iharduera eta azpiegitura guztiak erakunde horren baitan biltzea izan da Udal agintarien asmoa. Azken urratsa Gestisport enpresak gestionatzen zuen Olaizaga Kiroldegia Patronatuaren eskuetan jartzea izan da.

Alkateak prentsurrekoan adierazita-koaren arabera, “Elgoibarrek duen kirol instalakuntza guztiei ahalik eta aprobetxamendurik handiena ateratzeko asmotan hartu genuen Kiroldegia munizipalizatzeko erabakia”. Kiroldegia ezezik, Ikastolako frontoia ere Udalaren gestiopean geratu da. Izan ere, San Bartolome egunean berrinauguratu zuten frontoia, hainbat berri-



Kiroldegia, Mintxeta eta herriko instalakuntza gehienak Patronatuak gestionatuko ditu

kuntza lan egin eta gero.

Isaac Loiola, Hazienda zinegotziak balantze ekonomikoaren berri eman zuen. “Iazko 44.750.000 pta.ko aurrekontutik 37,5 milioi Udalak jarritakoak ziren, hortaz, Kiroldegiaren autofinantziazioa 7 milioiokoa zen”. Kiroldegiaren gastuak aintzakotzat hartuz,

1997rako 66.440.000 pta.ko gastu/sarreraren aurreikuspena egin du Udalak. Kasu honetan Patronatuaren autofinantziazioa %45ekoa izango da (30 milioi). Hala ere, Udalak ez duela lehen baino diru gehiago gastatuko adierazi zuen Loiolak, “lehen Gestisport-ek eskuratzen zituen etekinak

Udalak jasoko baititu orain”.

Zerbitzuen kontratazioak

Kafetegia eta garbiketaria lanak enpresa edo pertsonaren baten esku utziko dira, “oinarriak laister aterako dira eta enkante bidez eskaintza onenari emango zaio zerbitzuaren esplotazioa”. Era berean, Patronaturako egun osoz lan egiteko administrari postu bat ere kaleratuko da.

Ikastaroak astelehenetan, hilak 16, hasiko dira eta orain arteko gain berriak ere badaude: buzea, patinaia, eskalada, tenis eskola, haurrentzako aerobic-a, multikirola, mantenu gimnasia, abenturazko iharduerak eta larunbat arratsaldetan hilaren 28tik aurrera haurrentzako “Txiki Guai” izeneko saioak (igeriketa, zeramika, tenisa, xakea etab. konbinatuz).

RAMON MUJIKA:

“Zerbitzuak hobetu ditugu prezioak mantenduz”


Ramon Mujika Patronatuaren zuzendariaren asmoa bazkidegoa handitzea da, “eskaintza homogeen bat aurkeztuko dugu eta prezio onak”. Esate baterako, sarrera ordaintzearena desagertu egin da, “igerilekuko sarrera izan ezik”. Honez gain, 18 urtetik beherako, jubilatuz, ezinduz eta unibertsitariantzat prezio berriak egongo dira Kiroldegiko bazkide egiterakoan. Era berean, abuztuan zehar hainbat hobekuntza egin dira Kiroldegian: igerilekuko putzua margotu, ura berritu, igerilekuan argi gehiago jarri, aldagelak margotu, gimnasioan bentilazioa jarri, instalakuntza guztiak desinfektatu eta harreralekua berritu eta garbitu,.... “Aurrera begira beste berrikuntza lan batzuk egiteko

asmoa dugu: Kiroldegiko teilatua konpondu, kantxako zoluan saskibaloia, eskubaloia edo tenisa egiteko material aproposago bat jarri, instalazio osoa margotu eta aldageletako takilak berritu.” Honez guztiaz gain, Kiroldegiaren ordutegia zabaldu egin da: astegunetan 8etatik eguerdiko 2etara eta arratsaldean 4etatik 9etara bitartean egongo da irekita. Urritik aurrera 3etan irekiko da. Larunbatetan goizeko 8etan ireki eta jaiegun eta igandetan lehengo ordutegia mantentzen da”. Urtean zehar abuztuko lehen hamabostaldian itxiko dira Patronatuaren instalazio guztiak. Kirol Zerbitzuaren egoitza aldatu egin da Kultur Etxetik Kiroldegira. Telefonoa: 74 44 15.


Euskarari buruzko gramatika kaleratu du Andres Alberdi irakasleak

Andres Alberdi Institutuko euskara irakasle eta katedradunak euskal gramatikaren inguruko liburua kaleratu berri du. Elkar argitaletxearen eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eskakizun bati erantzunez egin du Andresek Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleei zuzendua dagoen lan mardula. Tirada 5.000 alekoa da.

Ohiko gramatiken aldean, “Eskola Gramatika” izenburuko lanak aspektu berritzaile bat dauka. Andresek azaldu bezala, “gramatika tradizionalak lantzen zituzten alderdiez gain, hau da, sintaxia, fonologia etab., honek hizkuntzaren alderdi testuala ere jorratzen du, komunikazio egoeran testuak duen garrantziari lehentasuna emanaz”. Atal honetan komunikazio gaitasuna, testua eta kontestua, testuaren koherentzia eta kohesioa eta testu mota ezberdinak aztertzen dira. Aipatu atalez gain, badago beste bat hizkuntz erabilera makurrak eta erdarakadak jasotzen dituenaz. Azkenik, azentuari buruzko zehaztapenak bai eta Euskaltzaindiaren azken-azkeneko arauak ere agertzen dira liburuan. Kontsulta liburu gisa pentsatua dagoenez, “mimoz eta oso zehatz daude xertatuta aurkibideak”.



Andres Alberdi euskara katedraduna da Herriko Institutuan.



Liburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak irauten duen lau urteetan zehar erabili ahal izango den tresna da. Orain kaleratu den liburu honez aparte, Andres Alberdik beste 7 lan ditu argitaratuak Institutuko Euskara Mintegiko kide bezala.

Gemma Monrealen erakusketa Mutrikun

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak Mutrikuko Kultur Etxean (Herriko kale, 28) hogeita lau kuadro erakutsiko ditu, gaurtik aurrera, hilak 13. Espatularekin egindako oleoaz baliaturik Euskal Herriko paisaiak margotzen ditu Gemmak. Erakusgai egongo diren margo gehienak Euskal Herriko paisaiak dira, bi edo hiru Andaluziakoak eta hiruzpalau elurrez estalitako paisaiak. Honako hau Gemmak egiten duen 27. erakusketa da eta aurrera begira Ubedako Marcelo Góngora pintorearekin erakusketa kolektibo bat egiteko asmoa dauka Donostian.

Ikastolaren historia, argazkien bitartez

Urriaren 6an ospatuko den Kilometroak 96 ekitaldien barruan, Ikastolen jaiaren batzorde antolatzaileek Elgoibarko San Bartolome Ikastolaren historiari buruzko argazki erakusketa antolatu dute. Ikastola sortu zenetik gaurdaino izan diren unerik inportanteenak jasotzen dituzten erretratuek osatzen dute erakusketa. Kultur Etxeko erakusgelan egongo dira argazkiak ikusgai, datorren ostiraletik, hilak 20, aurrera. Erakusketa bisitatzeko azken eguna urriaren 6a izango da. Erakusketaren bisita ordutegia: arratsaldeko 19etatik 21etara astegunetan eta 12etatik 2etara larunbat, igande eta jaiegunetan.

Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

ARRAQUETA

AZTERKETA ZENTRUA

ZIURTAGIRI MEDIKUAK
GIDA KARNETAK ETA ARMA BAIMENAK



Arragueta kalea, 2 bis. A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) - Tel. 700 700 - EIBAR

ORDUTEGIA
· GOIZEZ:
Astelehena eta asteazkena 10,30-12,30
· ARRATSALDEZ:
Astelehenetik ostiralera 4,30-7,30

Abentura bila Afrikan

Uztailaren 24an abentura bila atera ziren Pablo Barrenetxea, Mikel Arregi eta Alberto Zelaia. Bizikleta eta motxilak hartu eta hegazkinez Kenyarraino joan ziren. Euren

asmoa, Tanzaniaraino iritsi eta han buelta ematea zen, guztia bizikletaz. Baina, Afrika, Afrika da eta gauzak ez dira beti norberak nahi bezala irteten.



- LEHENENGO EGUNAK IZAN ZIREN ONENAK, EZ?

- Bai. Zanzibar deitzen dan isla batian egon ginan, Tanzanian. Oso politxa da, kriston hondartzak dauzka... Baina han ere problemak euki genduzen urakin edo. Tripako minakin egon ginan, batez ere Mikel. Halere, haura izan zan etaparik politxena.

- IBILBIDE BAT EGIN NAHI ZENUTEN.

- Bai, Tanzaniako kapitalian, Dar El Salam-en, hasi bihar ginan bizikletaz rekorrdua eitzen. Masaien estepia pasau bizikletaz, gero autobusian Serengetira jun eta Lago Victoriatikana Nakuru aldera jun Nairobiraino.

- BAINA...

- Justu lehenengo egunian baguazen bizikletan eta Pablo eta ni geratu ginan argazki bat etartzeko. Mikelek aurrera jarraitxu zaban eta bakarrik zauzala lau beltz bota jakozen gainera eta boltsa danak kendu zizkieten. Eskerrak dirua gainian zakan eta guri deika hasi zanian bestiak asustau eta alde ein zebe. Orduan erabaki genduan peligrasua zala hola ibiltzia eta gure plana kanbi-xau gendun.

- NOLA?

- Ba kanping-ian ein biharrian lo edozein tokitxan, Arushan hotel bat hartu gendun eta handik mobitzen

ginan, baina egun bateko etapak eitzen genduzen, beti toki beberera bueltatuz.

- ZER MODUZKO HOTELAK?

- Danetik dao baina gu merkera jun ginan eta hotelak ere txozna modu-kuak zian. Lo eixia eta gosaltzia 800 pta.n urtetzen zan. Eta bazkaltzia ere oso merke, 200 pta.n arroza eta oilas-kua jaten zitxugun.

- REGATEATZEN ERE IKASIKO ZENUTEN.

- Bai, han dana regateatzen da, ez bakarrik kaliau dauden merkatuetan, dendetan ere. Guk hasieran 1.000 pta.ko zeozer 500 pta.n erosten genduan eta kristona ein gendula uste gendun. Gero, alboko dendan gauza berdina merkio ikusten genduanian konturatzen ginan nobatadia ein genduala. Baina azkenian ikasi gendun. Mikeli motxila harrapau ziotenian erropia erosi bihar izan gendun eta bakero batzuk,

sudaderia eta niki bat erosi genduan dana 1.500 pta.n.

- ARUSHAN ASTEBETE EGIN ZENUTEN.

- Bai oso zona politxa da, Kili-manjaro ingurua ere bai... Gu bizikletekin ibili ginan mendixan, safarixak ere ein genduzen... Nakuru ere oso politxa da, flamenko mordo bat daude, rinozerontiak... Normalian dokumentaletan ikusten dana zuzenian bizi izan dou.

- ETA SAFARIK?

- Oso ondo. Krater batera ein genduan safari bat. Meteorito batek sortutako kraterra zan eta kristona. Barrura sartu eta dana sabana antzekua da, lalaua... Land-Rover baten juten zera, kanping-ian eitzen dozu lo, argazki mordo bat etara, animalia pillo bat ikusten dozu...

- MASAIEN HERRIXKAK ERE EZAGUTU ZENITUZTEN.

- Bai. Ikusi arte ezin laike sinestu zela bizi dian. Hori bai, herrira sartzeko 1.000 pta ordaindu bihar dozu eta argazkixak etaraten ez dizue lagatzen pagau gabe. Etxiak zimaurrekin inda daude, ilun-ilunak dia, ume mordo bat danak eulixekin arpeixan....

- ERREPIKATZEKO ESPERIENTZIA?

- Bai, baina bizikletian ez. Politxa izango zan todoterreno batekin edo jutia.

"Masaien zimaurrez egindako etxiak ikustia inpresionantia da"

Salerosketak

❖ TRABESIAKO ESKIAK saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. Egoera eta prezio onean.
☎ 74 40 62 Agustin

❖ LOGELA OSOA daukat saltzeko. Baita sarrerarako takiloia ere.
☎ 74 24 57

❖ ABDOMINALAK LANTZEKO "Boumerang" taula eta gomazko "Beuchat-Marlin" urpeko arrantza fusila ditut salgai. Berri-berriak.
☎ 74 36 36

❖ KANITXE TXAKURKUMEAk salgai.
☎ 74 43 50 Nekane

❖ MOBILETE Coma Harvard motor beltza saltzen dut, berri-berria. 50.000 pta.
☎ 75 10 01 Jabi

❖ SEAT IBIZA SS-AG saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajejan.
☎ 74 10 59

Etxebizitzak

❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren.
☎ 61 96 60 Ana

❖ Etxebizitza alokatzen dut Errosario kalean.
☎ 74 09 74 (Dolores)

❖ PISUA SALGAI daukat LEKEITION. Handia eta itsasora begira. ☎ 74 32 48

❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan.
☎ 74 04 75

❖ Elgetan BASERRI BAT salgai. Lasai deitu.
☎ 12 09 67/12 71 10

Partikularrak

❖ Lehen Hezkuntza, DBH lehen zikloa eta ingeleseko partikularrak ematen ditut.
☎ 74 28 02

❖ Fisika, kimika eta matematika partikularrak ematen ditut. Maila guztiak.
☎ 74 43 98/10 27 82 Marian

Agurrak

❖ Super zorionak Satxarentzat. Bi musu zure arreba Taniaren partez.

Lana

❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke.
☎ 74 04 75

❖ Konfidantzazko familia batek au-pair bat behar du Northampton-en (Ingalaterra) irailetik aurrera. ☎ 74 15 73

❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin.
☎ 74 36 38

❖ Austriako familia batek Au-pair bat behar du 9 hilabete-tarako. Aleman piska bat jakin beharko luke.
☎ 19 10 96 Edurne

❖ Adineko emakume bat zaindu eta harekin bizitzeko emakume bat behar dugu. Hobe euskalduna. ☎ 74 00 37

❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ 75 62 18

❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak daukat eta lan egingo nuke. ☎ 74 34 68

❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut.
☎ 75 61 79

❖ Emakume bat naiz eta lan egingo nuke goizez adinekoak zaintzen. Denda atentitzen esperientzia. ☎ 81 35 91 Leri

UZTAILA eta ABUZTUA

Hildakoak

▶ Jose Antonio Alonso Ruiz, 45 urte (uztailak 7) ▶ Manuel Figueride Novoa, 78 urte (uztailak 13) ▶ Julia Canelada Muñoz, 68 urte (uztailak 22) ▶ Francisco Linares Linares, 89 urte (uztailak 28) ▶ Maria Osoro Agirregomezkorta (abuztuak 2) ▶ Teresa Larrañaga Baztarrika (abuztuak 3) ▶ Lazaro Basurto Orbea (abuztuak 10) ▶ Carmen Artamendi Azurmendi, 85 urte (abuztuak 15) ▶ Juana Aranberri Agirregomezkorta (abuztuak 18) ▶ Mikel Garay Landa (abuztuak 20)

Jaiotakoak

■ Alazne Lorenzo Ruiz (uztailak 26) ■ Adrian Revilla Gómez (uztailak 26) ■ Olatz Ruiz Arrabalaga (uztailak 3) ■ Verónica Moreno González (uztailak 4) ■ Nerea Cabo Urain (uztailak 5) ■ Imanol Beristain Ezenarro (uztailak 6) ■ Andrea Arrieta López (uztailak 11) ■ Jone Alvarez Arrieta (uztailak 16) ■ Iraitz González Urbiola (uztailak 17) ■ Lorena Revert Sanchez (uztailak 20) ■ Maria Estevez Salazar (uztailak 29) ■ Nerea Pérez Alberdi (abuztuak 1) ■ Nora Isasti Huidobro (abuztuak 3) ■ Maialen Arberas Arrese (abuztuak 20) ■ Aitana Izagurre Cuesta (abuztuak 20) ■ Mikel Gurrutxaga Barruetabeña (abuztuak 22) ■ Olaia Irigoien Iriondo (abuztuak 28)

Ezkondutakoak

● Nicolas Gallardo Gallardo eta Amaia Gabiola Alzibar (uztailak 13) ● Juan Cruz Estrada Martínez eta Ana M. García Fernández (uztailak 13) ● Jose Antonio Mugerza Unzilla eta Natalia García Fenández (uztailak 25) ● Alfonso Migales Ordóñez eta Mercedes Rey Fernández (abuztuak 2)



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

ASTEAN ZEHAR

13 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

“Abierto hasta el amanecer”

✓ Herriko antzokian

14 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Abierto hasta el amanecer”

✓ Herriko antzokian

23,00 SOROTAN BELE

✓ Kiroldegian

Sarrera dohan

Antolatzailea: Kilometroak 96

15 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

“Abierto hasta el amanecer”

✓ Herriko antzokian

16 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Abierto hasta el amanecer”

✓ Herriko antzokian

17 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Abierto hasta el amanecer”

20 OSTIRALA

19,00 IKASTOLAREN ARGAZKI
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kilometroak 96

Urriaren 6ra arte

22,15 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
14, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
15, igandea:	Yudego	Yudego
16, astelehena:	Yudego	Yudego
17, asteartea:	Yudego	Yudego
18, asteazkena:	Yudego	Yudego
19, osteguna:	Yudego	Yudego
20, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

OKINDEGIA:

15, igandea: ZABALETA

ZineA

Abierto hasta el amanecer

Zuzendaria: Robert Rodriguez

Antzezleak: George Clooney, Quentin Tarantino, Juliette Lewis, Harvey Keitel.

Gecko anaiek Texas-eko polizia eta FBIkoak segika dituzte hainbat hilketa egin eta gero. Bizia salbatzeko Mexicora abiatzen dira. Carlos izeneko tipo batekin topo egin eta honek izkutatzeko lekua eskainiko die botinaren zati baten truke. Baina gutxien espero dutenean euren arazoak konpondu egingo direla ematen du: predikatzailer bat, semea eta alabak lagunduta, Mexicora bidean doa. Gecko anaiek bahitu egingo dituzte eta Mexicon dagoen kontaktuarekin harremanetan jartzeko garaiz iritsiko dira.

EGA titulua
ateratzeko

IZENEN ENKIN GEEKY

AEK EUSKALTEGIA
Plaza Txikia, 3 Tel. 74 13 32



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

ZUBIZARRETA

Iturgintza

Ubitarte, 5 - ELGOIBAR - Tel. 74 07 89



ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

*Egin zaituz orain
97rako bazkide!*

ABONOAK

ELGOIBARTARRA

- Banakakoa < 18 urte: 9.000 pta.
- Banakakoa > 18 urte: 10.500 pta.
- Banakakoa > 60 urte: 9.000 pta.
- Unibertsitaria: 9.500 pta.
- Familiarra: 19.500 pta.
- Ezindak: 8.000 pta.

KANPOTARRA

- Banakakoa: 12.500 pta.
- Familiarra: 21.000 pta.

IRAILAREN 16tik Aurrera



**IGERIKETA
GINNASIA EGOKITUA
AEROBIKA
MUSKULAZIOA**



**TENISA
ESKALADA
AQUAEROBIKA
KIROL ANITZA**



**TAIKI GUAI
KARATEA
BUZEOKA**



Izen-emteak Olatzaga kiroldegian **74 44 15**

Unifikatuta IGERILEKUA EGUN OSOAN IREKITA (2etatik 3etara izan ezik)



KENSINGTON

Pedro Muguruza, 8 - ELGOIBAR - TEL./FAXA: 74 02 36



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE



- ▶ **Cambridge Unibertsitatean titulaturiko irakasleak**
- ▶ **Esperientzia handia enpresetan**
- ▶ **ACEIGeko kide bakarrak Deba Behean**
- ▶ **Cambridge azterketen prestakuntza (ES-438 Cambridge azterketako kide antolatzailea)**
- ▶ **Talde txikiak eta homogeneousak**

*Matrikula zabalik. Zatoz!!
Klaseak 16an hasiko dira!*



Unibersity of Cambridge
Local Examinations Syndicate

96ko EKAINEAN GAINDITU ZUTENAK

Zorionak!

IDOIA AGIRREGOMEZKORTA LIZARBURU
SUSANA ALVES TORRES
GAIZKA ARGARATE BELATEGI
XABIER ARREGI GARCIA
ION ARREGI RETOLAZA
ION ARRIETA NARBAIZA
JOSEBA ARRILLAGA GOIKOETXEA
IBAI AZKARATE LARREA
NAIARA BABARRO ACEITON
JAIZKI BAKAIKOA LARREA
NEREA BASTIDA MARTINEZ DE BUJO
INAKI BENGOETXEA ANSOLA
LORE BEREZIARTUA UNZUETA
AITOR BERRAONDO ALBERDI
ALBERTO CACERES GUILLEN
LEIRE DIEGUEZ ALBERDI
PILAR DIEZ DE LA FUENTE
ANE ETXEBERRIA ALDAZ
BENAT ETXEBERRIA MUJIKA
ISMENE FULGENCIO ELIZBURU

IBON GARCIA EIZAGIRRE
IGOR GARITANO ALUSTIZA
ANE GARMENDIA KONDE
AITZOL GARMENDIA KONDE
IBAI GURRUTXAGA GOIKOETXEA
JOANA IBARLUZEA GABILONDO
MIREN ITURBE BERASATEGI
XANTI ITURBE BERASATEGI
EIDER JAUREGI ELORZAANDONI
KORTAZAR ANDUEZA
MIREN LARRANAGA AGIRREGOMEZKORTA
ALEX LOPEZ ONDARZA
NEREA MENDIZABAL BADIOLA
SERGIO MORENO DE JUAN
IRUNE MUGERZA ARANZAMENDI
JUAN MANUEL NAVARRO NAVARRO
NEREA NUNEZ GODOI
LIDE OREGI SANCHEZ
ARKAITZ ORTEGA TRUCIOS
XABIER SAN MARTIN ASTORKIA
IZASKUN SARRIUGARTE MOCHALES
DIEGO TENA MARTIN
LEIRE UGARTEBURU GABILONDO
ION VILARCHAO GALARRAGA
ITZIAR ZUBIKARAI IGARZA

Congratulations!